




BIZITEGI ERAIKINA ETA PRINCIPE ANTZOKIA
D MAILA

ALDAMAR 7 eta 9
ALDAMAR 7 eta 9 ETA SAN JUAN 10 eta 12



Egilea eta data: Ramon Cortazar; 1921

Deskribapena.

Mehelinen arteko eraikina, bi fatxadatar ematen duena (San Juan eta Aldamar kaleetara), behe oina eta jatorrizko sei goi oin dituen, azkena atzeraemana (martxoko proiektuaren 7. eta 9. zenbakien arteko profil diferentzia urte bereko abuztuko aldaketa batean ezabatu zen). Gero, 1950ean, estalki inklinatu bat eraiki zen eta etxebizitzak gaitu ziren horren azpian 9. zenbakiari dagokion zatian. Aldamar kalerantz, behe oina eta lehenengoa jatorrizko "antzokiari" dagozkio eta gainerakoak etxebizitzetzi; San Juan kalean, berriz, "antzokiari" bigarren oina ere badagokio. Bizitegi eraikinen artean dago, eta nabarmena da kanpoaldean behe oinak bi fatxadetara duen ordena erraldoia, eta Aldamar kalekoan sartzen da antzinako Principe Antzokiaren sarbide arkuak (gaur zinema aretoak dira, eta San Juan kaleetik sartzen da hor). Fatxadaren nabarmenak dira, batetik, berez antzokiarenak diren dekorazio elementuak behe oinetan eta, bestetik, goi oinetan, estalduraren lore motiboak mosaikoan. Gaur egun Principe Zinemak okupatutako jatorrizko antzokiaren zatian hustutako eraikina. Egoera horretan, markesina bat gehitu zen San Juan kaleko fatxadaren.

Babes erregimena.

1. Erregimen orokorra.
Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.
Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira.
2. Berariazko erregimena.
 - A. Babesetik kanpo utzitako kanpo elementuak edo zatiak: 7. oinaren jasodura, San Juan kaleko fatxadaren markesina.
 - B. Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: estaldurak mosaikoan eta elementu moldekatuak.
 - C. Esku hartzeko irizpide zehatzak: ez, erregimen orokor hori arautzeko baldintzak betetzeari lotutakoak izan ezik, hala badagokio.